

# EUSKARABENTURA ESPEDIZIOA 2023

## IZEN-EMATEAREN OINARRIAK

### ZER DA?

*EuskarAbentura Espedizioa 2023* (4.edizioa) 120 gaztek osatutako espedizioa izango da, 2023ko uztailaren 1etik 31ra Euskal Herria oinez eta euskaraz zeharkatuko duena.

### BALDINTZAK

EuskarAbentura Espedizioa 2023 ekintzan parte hartzeko hurrengo baldintzak bete behar dira:

- 2006 edo 2007 urteetan jaioa/sortua izan  
*2008an jaiotakoan hautagaitzak ere onartuko dira Lapurdi, Baxe-Nafarroa, Zuberoa eta diasporako gazteen kasuan.*
- Euskaraz jakin

Gure helburua mundu mailako gazte euskaldunen sare bat osatzea da, beraz **zazpi euskal lurraldeetatik** datozen gazteez aparte, **diasporako** parte-hartzaileak ere bilatzen ditugu!

### HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO

Hautagaitza aurkezteko [www.euskarabentura.eus](http://www.euskarabentura.eus) webgunean aurkituko duzuen formularioan gaztearen eta tutore/gurasoen datuak bete eta bi dokumentu bidali beharko dira:

#### 1. AURKEZPEN BIDEO BAT

Gehienez minutu bateko bideo labur bat. Kontaiguzu nor zaren, EuskarAbenturan zergatik parte hartu nahi duzun, espediziotik espero duzuna, zein ekarpen egingo diozun taldeari... zu pixkatxo bat ezagutzeko aukera izan nahi dugu.

#### 2. PROIEKTU BAT (**Kontuz!** *Proiektu mota batzuetan dokumentu bat baino gehiago bidali beharko da*)

Hautagai bakoitzak banakako proiektu edo lan bat egin beharko du. Proiektu hori egiteko sei formatu ezberdin dituzu aukeran, horietako batean proposatzen dizkizugun hiru gaietako bat jorratu beharko duzu:

## PROIEKTUA EGITEKO GAIAK (2023)



### TURISTAK VS BIDAIARIAK

Zer da bidaiatzea? Askotan aisialdiarekin eta oporrekin lotzen dugun jardura da, baina bidaiatzeko modu/motibazio ezberdinak daude: beste toki batzuk ezagutzea, bizimodu aldaketa bat bilatzea, nonbaitetik ihes egitea... Nork bidaiatzen du modu bakoitzean? Berdin hartzen al ditugu bidaiari guztiak?

Gaur egun eskuragarri ditugun iturri eta tresna askok mudu osoko gizarte eta kulturen inguruko informazioa eskaintzeaz gain, urrun bizi diren pertsonak ezagutu eta haiekin harremantzeko moduak ere eskaintzen dizkigute. Bidaia aldizkarietako irudi koloretsuen bitartez urrutiko paisaiak ezagutzen ditugu, liburu eta filmen bitartez gureak ez diren beste kultura asko ezagutzen ditugu eta munduko edozein hiritako kaleetan barrena birtualki "mugitu" gaitzake. Are gehiago, museo askok haien bildumak sarean igo dituzte, artelanak kalitate bikainean eta definizio altuan ikusteko aukera emanez. Gure etxetik mugitu gabe gauza guzti hauek ezagutu ahal baldin baditugu, zein da, gaur egun, bidaiatzearen helburua?

Ba al dakizu **gentrifikazioa** zer den? Askok defendatzen dute turismoak toki bateko ekonomia aktibatzen duela. Hori hala bada, zergatik sortu dira turismoaren aurkako mugimenduak munduko hainbeste tokitan?



### NATURA GIZARTEAN/GIZARTEA NATURAN

Gutako gehienok bizi garen gune urbanoetan, herri zein hirietan, nola txertatzen da natura? Zein garrantzia dauka gure bizitzan? Gizartean bizitzea ahalbidetzen diguten antolakuntza urbanoek guztiz aldentzen al gaituzte naturarengandik? Ezagutzen al ditugu inguruan bizi diren landare, animalia eta izaki bizidunak? Zenbateraino dira ikusezin eta zenbateraino beharrezko gure eguneroko bizitzan?

Ba al dakizu **antropozenoa** zer den? azken urteotan hainbat pentsalariren ahotan entzun izan den termino bat da. Gaur egun bizi dugun garai geologikoa izendatzeko proposamen berria da, izan ere, ez omen da munduan geratzen giza inpakturik izan ez duen eremu naturalik. Gizakiak, alde batetik, natura babesteko ekimenak abian jarri ditu: parke natural babestuak, ondare naturala... Aldiz, bestetik, etengabe ari gara gure inguruan eta bertan bizi diren izaki bizidun guztien orekan aldaketa bortitzak eragiten.

Posible al da naturaz hitz egitea antropozenoaren garaian? Zein da gaur egun naturarekin eduki beharko genukeen erlazioa? Posible al da garapen jasangarria edo sostengarria irudikatzea? Zer egin dezakegu norbanako zein gizarte moduan?



### HAPPYKRAZIA

Autozaintza eta antzeko kontzeptuen eskutik garaiotan entzun ohi ditugun mezuek **zoriontasun indibiduala** helburu moduan edukitzera bultzatzen gaituzte: "Zorionsua ez banaiz, neurea da ardura, esfortzu nahikorik egin ez dudaren seinale izango da eta jarrera aldatu beharko nuke". Ideia hauek uste baino gehiago eragiten digute eta, hainbatetan, ideia iruzurti bat zabaltzen dute: desiratzen dugun oro eskuragarri dugula. **Psikologia positiboa** deritzon honek, frustrazio sentimenduak sor ditzake.

Gainera, **zoriontasunerako** eredu bakarra izan ohi dugu, hots, **arrakastaren eredu bateratua**: edertasunak nolakoa izan behar duen, zelako harreman motak izan behar ditugun, gure bizitza nola bizi behar dugun, zer izan behar dugun gustuko...

Egoera honek, hein handi batean, ez du espaziorik uzten gure egoera baldintzatzen duten bestelako faktore batzuei erreparatzeko. Gure iraganak ez al du eraginik gugan? Zein neurritan eragiten digu testuinguru sozial eta ekonomikoak? Zer esan arraza, genero, edota nazionalitateak izan dezaketen eraginez?

## INFORMAZIO ITURRI ETA DOKUMENTAZIORAKO IRADOKIZUNAK:

### TURISTAK VS BIDAIARIAK

- MBAYE GIL SANCHEZ:  
<https://www.berria.eus/ikasgela/berriak/xehetasuna/mbaye-gil-sanchez-beharrak-nire-herrian-ase-baditzaket-ez-dut-zertan-bizitza-arriskatu>
- NAZIOARTEKO TURISMOA :  
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2512/nazioarteko-turismoa>
- GU TURISTA:  
<https://www.argia.eus/albisteak/datozenen-turismoa-txarra-badanolako-da-gu-goazenekoa>
- ESPAZIOAN:  
<https://www.berria.eus/albisteak/203234/soilik-turistak-daramatzen-lehen-espaziontzia-aireratu-da.htm>
- GENTRIFIKAZIOA:  
<https://www.berria.eus/paperekoa/1956/037/001/2019-05-19/etxeak-hiriak-eta-gentrifikazioa.htm>

### NATURA GIZARTEAN

- NATURA EUSKARAZ:  
<https://www.berria.eus/ikasgela/berriak/xehetasuna/natura-euskaraz-izendatzen-zutenekoa>
- HURBILEKOA:  
<https://www.berria.eus/ikasgela/berriak/xehetasuna/olatz-aizpurua-hurbil-ditugun-gauzak-ez-ditugu-ikusten>
- ENARAK:  
<https://www.aranzadi.eus/eu/badator-uda-badatoz-enarak>
- MENDIAK GARBIRIK AUZOLANA:  
<https://kanaldude.eus/bideoak/5512-hurbiletik-mendiak-garbirik-auzolanari-eske>
- EUSKARA, NATURA, GIZARTEA:  
<https://www.berria.eus/ikasgela/berriak/xehetasuna/basoa-natura-eta-hizkuntza-gurutzatzen-diren-lekua>
- SENDABELARRAK:  
<https://www.argia.eus/multimedia/elkarrizketak/sendabelarrek-badakite-gu-gara-haiei-buruz-hainbeste-ez-dakigunak>
- LANDAREAK:  
<https://www.aranzadi.eus/eu/garunak-landareak-ezkutatzen-dizkigu>







### GIZARTEA NATURAN

- ANTROPOZENOA:  
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2503/alejandro-cearreta-geologoa-eta-paleontologoa>
- ZARATA:  
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/1809/zikindu-gabekutsatzen-du-zaratak>
- KINKA - PARKE EOLIKOAK:  
<https://www.berria.eus/podcast/kinka/parke-eolikoak-haizeak-haizatu-du-eztabaida.html>
- SUTEAK:  
<https://www.berria.eus/ikasgela/berriak/xehetasuna/beroaldiei-aurre-egiten-hasi>

### HAPPYKRAZIA

- HAPPYKRAZIA:  
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2790/happykrazia>
- MANDAMENTU HIPERMODERNOAK:  
<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ahoz-ahobideoak/osoak/8348528/zoriontsu-izatearen-exigentziak-dezepzioa-eta-errudun-sentsazioa-ekartzen-ditu-horretara-iristen-ez-garenean/>
- UTOPIA:  
<https://www.berria.eus/ikasgela/berriak/xehetasuna/layla-martinez-utopien-funtzioa-energien-aktibazioa-da>

## PROIEKTUEN FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKO DOKUMENTUAK

 HISTORIKOA	 LITERARIOA	 IKUS-ENTZUNEZKOA	 MUSIKALA	 PLASTIKOA	 SORMEN DIGITALA
<b>1.TESTUA</b>	<b>1.TESTUA</b>	<b>1.BIDEOA</b>	<b>1.AUDIOA</b>	<b>1.ARTELANA</b>	<b>1. GARATUTAKO PROIEKTUA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: 3-5 orrialde (azala aparte)</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea : 1,5</li> <li>- Anexorik ez</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: (azala aparte) Olerkia: 3 orrialde Prosa: 3-5 orrialde</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea: 1,5</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraupena: 2-5 minutu</li> <li>- Generoa: dokumentala/fikzioa</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: MP4 edo AVI eta <a href="#">WETRANSFER</a> esteka batean bidali</li> <li>- Artxiboaren izena: abizena+izena+obra</li> <li>- <b>EZ DADILA EGILEAREN IZENA AGERTU</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraupena: 2-8 min</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: MP3 edo AVI eta <a href="#">WETRANSFER</a> esteka batean bidali</li> <li>- Artxiboaren izena: abizena+izena+obra</li> <li><i>* Abesti ezagunen bertsiok onartuko dira BAINA konposizio musikal originalak hobeto baloratuko dira.</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gehienezko tamaina: 50x70x20</li> <li>- Materiala/teknika: Askea</li> <li>- EGILEAREN IZENA EZ DADILA AGERTU</li> </ul> <div style="background-color: #fce4ec; padding: 5px; margin: 5px 0;"> <p><b>GOGORATU!</b> Berandueenez martxoaren 6rako artelan originala hurrengo helbidera iritsi behar da, postaz ala pertsonalki ekarriz:</p> </div> <p style="text-align: center;"><b>EuskarAbentura Elkartea</b> Martikoena Kalea, 16, 2.solairua - azkeneko bulegoa 48992 – Algorta <b>Ordutegia:</b> astelehenetik ostiralera 09:00-14:00</p>	<p>2 aukera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kodea ZIP formatuan, garatutako proiektua osatzen duten fitxategiekin. Fitxategiaren izena: abizena+izena+proiektuaren izena.zip</li> <li>• Proiektua ikusteko edota deskargatzeko esteka azalpen testuaren baitan bidali.</li> </ul>
<b>2.AZALPEN TESTUA</b>	<b>2.AZALPEN TESTUA</b>	<b>2.AZALPEN TESTUA</b>	<b>2.AZALPEN TESTUA</b>	<b>3.AZALPEN TESTUA</b>	<b>2.AZALPEN TESTUA</b>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: 2-3 orrialde (azala aparte)</li> <li>- Edukia: ekoizpen prozesuaren azalpena. Erabilitako baliabideak, gaiaren hautaketaren zergatia, izandako zailtasunak...</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea: 1,5</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: 2-3 orrialde</li> <li>- Edukia: Obraren azalpena + Partitura/Hitzak</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea : 1,5</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: 2-3 orrialde</li> <li>- Edukia: Obraren garapenaren eta kontzeptuaren azalpena</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea : 1,5</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 2px;"><b>3.OBRAREN ARGAZKIA</b></div> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Formatua: JPEG/PDF/PNG</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: 2-3 orrialde (azala aparte)</li> <li>- Edukia: produktuaren ideia, erabilitako teknologiaren azalpena, tresnaren azalpena (pantaila kapturekin) eta zailtasun nagusien ebazpena.</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea : 1,5</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul>

**ADI! KASU!** Baldintza hauek betetzen ez dituzten proiektuak zuzenean baztertuak izango dira, ez dira ebaluaziora bidaliko eta ez dira parte-hartzaileen hautaketan kontuan hartuko.

## 2023 EGUTEGIA

**Martxoaren 3ra arte  
(barne)**

Izen-emate epea: Proiektua eta aurkezpen bideoa bidali

**Apirilak 14**

Behin-behineko hautatuen zerrenda argitaratuko da webgunean

**Apirilak 14 – Apirilak 21**

Behin-behineko hautatuek esleitutako plaza gordetzeko eskatuko zaien **BERMEAREN ZIURTAGIRIA** bidali beharko dute [izenemate@euskarabentura.eus](mailto:izenemate@euskarabentura.eus) helbidera.

(Info+ Izen-ematea burutzean email batean jasoko duzue)

### KONTUAN EDUKI

Espedizioan parte hartzeko hautatuak izan diren gazteetatik baten batek bere plazari uko egingo balio edota plaza gordetzeko derrigorrezkoa den bermea ordainduko ez balu bere plaza itxaron zerrendan geratu diren gazteei eskainiko zaie, hurrenkeran. Kasu horietan:

**Apirilak 21 – Apirilak 28**

Itxaron zerrendatik sartu diren hautatuentzako:

Esleitutako plaza gordetzeko eskatuko zaien **BERMEAREN ZIURTAGIRIA** bidali beharko dute [izenemate@euskarabentura.eus](mailto:izenemate@euskarabentura.eus) helbidera.

(Info+ Izen-ematea burutzean email batean jasoko duzue)

**Apirilak 14 – Maiatzak 12**

Hautatuak izan diren eta bermea ordaindu duten gazte guztiek eskatuko zaien **DOKUMENTAZIOA** bidali beharko dute [izenemate@euskarabentura.eus](mailto:izenemate@euskarabentura.eus) helbidera.

(Info+ Izen-ematea burutzean email batean jasoko duzue)